



TOLOSAKO
UDALA

ALKATEAREN DEKRETUA

OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Alkate-lehendakariak emana

Departamentua:	Kultura, festak eta gazteria
Arloa:	Gazteria
Espedientea:	2023IORD00010
Gaia:	<i>Tolosan irabazi asmorik gabeko gazte elkartu eta elkartugabeen ekimenak sustatzeko diru laguntzak</i>

I. AURREKARIAK

Udal honen Udaltzakeria, 2017ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran, onartu zuen Tolosako Udaltzakeria eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea (GAO, 2017ko uztailak 7, 130 zk.).

Era berean, Udaltzakeria, 2023ko urtarrilaren 26an eginiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Tolosako Udaltzakeria eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailean egindako aldaketari.

Bestalde, hasieraz onartu berri den Tolosako Udaltzakeria eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzaileak honakoa dio: *Alkatetzari ahalmena ematen zaio dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile bakoitzaren beharrezko aldaketak egiteko, ordenantza horiek Ordenantza Orokor honetan sartutako aldaketetara egokitzeko helburua baduten. Ordenantza espezifikoen aldaketak Alkatetzaren Dekretu bidez ebazteko dira eta informazio publikoko izapide bideak jarraitzea.*

Erregimen Lokaleko oinarriak arautzen dituen legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko (GAO, 2023ko otsailak 2, 22 zk.).

Informazio publikorako epea amaitzen bada inolako erreklamaziorik egin gabe, onarpena behin betikoa izango da. Bestelako kasuan, udaltzakeria osoak aztertu eta ebatzi beharko ditu aurkeztutako alegazio edo iradokizunak, eta Ordenantza Orokorribehin betiko onarpena eman, hala baderitzo.

ESKU594b50a1-d113fz125ab0b29a42f508b8d0d1d



Bestalde, Gazteria saileko, Irabazi asmorik gabeko gazte elkartu eta elkartugabeen ekimenak sustatzeko diru laguntzak emateko ordenantza espezifikoa onartu zuen, Udalbatzak 2018ko irailaren 25ean behin betikoz onartua, eta 2018ko urriaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

II. EGINDAKO ALDAKETEN INGURUAN

Tolosako Udalaren eta bere Entitate Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean edukiaren egokitzapen eta moldaketa beharra dakarte, besteak beste, honako legeek:

- Enpresa Sortu eta Hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legea
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea, 21 bis artikulua
- 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea, azken xedapenetako hamahirugarrena.

Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2023 Lege Orokorri jarraiki zeharkako kostuen muga kendu da eta justifikatzeko kontu-erraztuaren inguruan ere argibideak sartu dira.

Aldaketok guztiok modu honetan eragiten diote Tolosako gazteriako lehia bidezko dirulaguntzen programaren ordenantza espezifikoari:

Oinarri orokorrean 10. artikuluan, Pertsona edo entitate onuraduna izateko baldintzak eta baldintza horiek frogatzeko modua.

Aurreko testua:	Testu berria:
Gazteriako oinarri berezietan 3. Artikuluan	Gazteriako oinarri berezietan 3. Artikuluan
Diru-laguntza horiek Tolosako irabazi asmorik gabeko gazte elkarteek, elkartu gabeko gazteek edota norbanakoek eskatu ahal izango dituzte.	Diru-laguntza horiek Tolosako irabazi asmorik gabeko gazte elkarteek, elkartu gabeko gazteek edota norbanakoek eskatu ahal izango dituzte.
Gazte elkartuen kasuan legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera nagusiki Tolosako udalerrian garatzen dutenak izango dira.	Gazte elkartuen kasuan legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera nagusiki Tolosako udalerrian garatzen dutenak izango dira.
Halaber, diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte nortasun juridikorik gabeko gazteek, jarduera zehatzak Tolosako Udalerrian egiten badituzte, Tolosako herriarentzat eta Tolosako eragileekin elkarlanean badira.	Halaber, diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte nortasun juridikorik gabeko gazteek, jarduera zehatzak Tolosako Udalerrian egiten badituzte, Tolosako herriarentzat eta Tolosako eragileekin elkarlanean badira.
Nolanahi ere, ekintza zehatz horren	Nolanahi ere, ekintza zehatz horren



<p>ordezkari edo ahaldun bakar bat, edo baita bi ere, beken kasuan, izendatu beharko dira, onuradun gisa dagozkion bete beharretarako.</p> <p>Kasu horietan guztietan, nahikoa izango da eskatzaileen erdiak edota eskatzailea bakarra denean, 14-30 urte bitarte izatea eta diruz laguntzeko proposatzen duen jarduera hein nagusian Tolosan burutzea.</p>	<p>ordezkari edo ahaldun bakar bat, edo baita bi ere, beken kasuan, izendatu beharko dira, onuradun gisa dagozkion bete beharretarako.</p> <p>Kasu horietan guztietan, nahikoa izango da eskatzaileen erdiak edota eskatzailea bakarra denean, 14-30 urte bitarte izatea eta diruz laguntzeko proposatzen duen jarduera hein nagusian Tolosan burutzea.</p> <p>Ezingo dute parte hartu:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.b) Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.d) Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktorengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badau-
---	--



	<p>de, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa. Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.</p> <p>Dirulaguntza lerro bakoitza eskatzeko baldintza zehatzak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak izango dira.</p>
--	---

11. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>Gazteriako Oinarri berezian 8. artikuluan, Onuradunaren betebeharrak eta eskubideei buruz:</p>	<p>Gazteriako Oinarri berezian 8. artikuluan, Onuradunaren betebeharrak eta eskubideei buruz:</p>
<p>Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, deialdian jasotakoaz gain, hauek dira:</p>	<p>Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, deialdian jasotakoaz gain, hauek dira:</p>



<p>Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Tolosako Udalarenak egunean dituela egiaztatzea. Dena den, erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, udalari datu hauek kontsultatzeko baimen klausula bete ahal izango dute, diru-laguntza eskaerarekin batera erregistroan entregatuta, besteak beste, kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 3.000 €-tik beherako diru-laguntza eskaeretan. - Pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena eransten Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, deialdian jasotakoaz gain, hauek dira: 	<p>Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Tolosako Udalarenak egunean dituela egiaztatzea. Dena den, erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, udalari datu hauek kontsultatzeko baimen klausula bete ahal izango dute, diru-laguntza eskaerarekin batera erregistroan entregatuta, besteak beste, kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 3.000 €-tik beherako diru-laguntza eskaeretan. - Pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena eransten Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, deialdian jasotakoaz gain, hauek dira: <p>Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehenatasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.</p>
--	--

18. artikulua. Prozeduraren hasiera

Aurreko testua	Testu berria
-----------------------	---------------------

ESIEE19-01880A1-dBB6RA0De-bb29-42f57cbd0ddd



<p>6. Diru-laguntza emateko irizpideak.</p> <p><u>6. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK</u></p> <p>Urteko ekintza eta ekintza puntualen kasuan, lehiakortasuneko aldiberekotasunaren bidez, eman beharreko diru-laguntzei dagozkien eta deialdi bakoitzean ezartzen diren balorazio irizpide zehatzez gain, aurkeztutako proiektuak baloratzeko, ondoren aipatzen diren faktoreak hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Burutu beharreko programaren edo jardueraren kalitatea, jarduera eta elkarreak dauzkan bazkide eta parte hartzaile kopurua, baita programaren objektua burutzeko beharrezko formakuntza ikastaroak ere. 30 puntu• Euskararen erabilera sustatzea bere jarduera-esparruaren barruan. Genero-ikuspegia txertatzea, emakume eta gizonen egoerak, baldintzak eta premiak desberdinak direla kontuan hartuta, otsailaren 18ko 4/2005 legea betez. Proposatutako jardueretan kanpo jatorria duten tolosar gazteen parte hartzea bultzatzeko estrategiak txertatzea. Haur, nerabe eta gazteentzako jarduerak antolatzean ohitura osasungarrien alde egitea. 40 puntu• Erakunde edo pertsona eskatzailearen urteko programak Tolosako bizitza soziokulturalaren sustapenean egingo duen ekarria eta udal-intereseko jardueretan parte-hartzea. 20 puntu<ul style="list-style-type: none">○ Bere jarduera garatzen	<p>6. Diru-laguntza emateko irizpideak.</p> <p><u>6. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK</u></p> <p>Urteko ekintza eta ekintza puntualen kasuan, lehiakortasuneko aldiberekotasunaren bidez, eman beharreko diru-laguntzei dagozkien eta deialdi bakoitzean ezartzen diren balorazio irizpide zehatzez gain, aurkeztutako proiektuak baloratzeko, ondoren aipatzen diren faktoreak hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Burutu beharreko programaren edo jardueraren kalitatea, jarduera eta elkarreak dauzkan bazkide eta parte hartzaile kopurua, baita programaren objektua burutzeko beharrezko formakuntza ikastaroak ere. 30 puntu• Euskararen erabilera sustatzea bere jarduera-esparruaren barruan. Genero-ikuspegia txertatzea, emakume eta gizonen egoerak, baldintzak eta premiak desberdinak direla kontuan hartuta, otsailaren 18ko 4/2005 legea betez. Proposatutako jardueretan kanpo jatorria duten tolosar gazteen parte hartzea bultzatzeko estrategiak txertatzea. Haur, nerabe eta gazteentzako jarduerak antolatzean ohitura osasungarrien alde egitea. 40 puntu• Erakunde edo pertsona eskatzailearen urteko programak Tolosako bizitza soziokulturalaren sustapenean egingo duen ekarria eta udal-intereseko jardueretan parte-hartzea. 20 puntu<ul style="list-style-type: none">○ Bere jarduera garatzen duen esparruan
--	---



<p>duen esparruan erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna.</p> <ul style="list-style-type: none">○ Aurkeztutako programazioa biztanleria gazteari oro har hedatzea. <ul style="list-style-type: none">• Erakundearen finantza-baliabideak eta eskatutakoaren proportzioa bereak dituen baliabideekiko. 10 puntu <p>Goian jasotako atalak oinarri hartuta puntuazio irizpide zehatzak bilduko dira deialdi berezietan, hauen aplikazioak puntuazio zehatz bat emango dio eskaera bakoitzari, lehentasun-hurrenkera bat ezarriz.</p> <p>Puntuaren balorea zein izango den zehazteko, atal honetako diru-laguntzak guztira izango duten zenbatekoa hartu eta onartutako eskaera guztiei emandako puntuekin zatitu beharko da. Diru-laguntza izango da eskaera bakoitzak lortu dituen puntu guztien batura.</p> <p>2.- Deialdi bakoitzean diruz lagunduko diren lan ildoak ondorengoak izango dira:</p> <p>A) URTEKO PROGRAMAZIOA Diruz lagunduko dira beren eguneroko jardueren eta ohiko jarduera bidez elkartearen helburuak lortu nahi dituzten programak eta jarduerak.</p> <p>Diru-laguntza ildo hau gazterriako diru laguntzen partidari atxikiko zaio.</p> <p>Proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 70 gaituko. Aurrekontuan diru-sarrerak %30era iristen badira defizit osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz,</p>	<p>erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna.</p> <ul style="list-style-type: none">○ Aurkeztutako programazioa biztanleria gazteari oro har hedatzea. <ul style="list-style-type: none">• Erakundearen finantza-baliabideak eta eskatutakoaren proportzioa bereak dituen baliabideekiko. 10 puntu <p>Goian jasotako atalak oinarri hartuta puntuazio irizpide zehatzak bilduko dira deialdi berezietan, hauen aplikazioak puntuazio zehatz bat emango dio eskaera bakoitzari, lehentasun-hurrenkera bat ezarriz.</p> <p>Puntuaren balorea zein izango den zehazteko, atal honetako diru-laguntzak guztira izango duten zenbatekoa hartu eta onartutako eskaera guztiei emandako puntuekin zatitu beharko da. Diru-laguntza izango da eskaera bakoitzak lortu dituen puntu guztien batura.</p> <p>2.- Deialdi bakoitzean diruz lagunduko diren lan ildoak ondorengoak izango dira:</p> <p>A) URTEKO PROGRAMAZIOA Diruz lagunduko dira beren eguneroko jardueren eta ohiko jarduera bidez elkartearen helburuak lortu nahi dituzten programak eta jarduerak.</p> <p>Diru-laguntza ildo hau gazterriako diru laguntzen partidari atxikiko zaio.</p> <p>Proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 70 gaituko. Aurrekontuan diru-sarrerak %30era iristen badira defizit osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza,</p>
---	--



<p>bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera jardueraren kostua gainditu.</p> <p>-BAZKIDEEN PRESTAKUNTZA</p> <p>Diruz lagunduko da elkartekideak bertako kudeaketa, programazio eta jarduerekin lotutako prestakuntza eta gaitze ikastaro eta programetara joatea. Atal honetan, bereziki aisialdiko monitoreak eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak hartuko dira kontuan.</p> <p>Diru-laguntza ildo hau gazteriako diru laguntza partidari atxikiko zaio.</p> <p>-MATERIALA EROSTEA ETA BERRITZEA</p> <p>Eskatzaileak bere eguneroko programak eta jarduerak burutzeko behar dituen materialen erosketak eta berritzeak izango dira.</p> <p>B) EKIMEN PUNTUALAK</p> <p>Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen sustapenerako sistemak dioen moduan, parte hartzeak herritartasun aktiboa sustatzea eta era berean hiru elementu ezberdin bultzatzea dakar:</p> <ul style="list-style-type: none">- Norbanako mailan autonomia sustatzea: Norbere burua antolatu eta izateko/egiteko aukera eta gaitasunak izatea. 40 puntu- Talde mailan dimentsio aktiboa sustatzea: Gizabidezko jarrera, jendartearekiko konpromisoa eta errealitatearekiko espiritu kritiko duena. 30 puntu- Komunitate mailan jendarteko aldaketa prozesuetan inplikatzeko gaitasuna izatea. 30 puntu.	<p>laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera jardueraren kostua gainditu.</p> <p>-BAZKIDEEN PRESTAKUNTZA</p> <p>Diruz lagunduko da elkartekideak bertako kudeaketa, programazio eta jarduerekin lotutako prestakuntza eta gaitze ikastaro eta programetara joatea. Atal honetan, bereziki aisialdiko monitoreak eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak hartuko dira kontuan.</p> <p>Diru-laguntza ildo hau gazteriako diru laguntza partidari atxikiko zaio.</p> <p>-MATERIALA EROSTEA ETA BERRITZEA</p> <p>Eskatzaileak bere eguneroko programak eta jarduerak burutzeko behar dituen materialen erosketak eta berritzeak izango dira.</p> <p>B) EKIMEN PUNTUALAK</p> <p>Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen sustapenerako sistemak dioen moduan, parte hartzeak herritartasun aktiboa sustatzea eta era berean hiru elementu ezberdin bultzatzea dakar:</p> <ul style="list-style-type: none">- Norbanako mailan autonomia sustatzea: Norbere burua antolatu eta izateko/egiteko aukera eta gaitasunak izatea. 40 puntu- Talde mailan dimentsio aktiboa sustatzea: Gizabidezko jarrera, jendartearekiko konpromisoa eta errealitatearekiko espiritu kritiko duena. 30 puntu- Komunitate mailan jendarteko aldaketa prozesuetan inplikatzeko gaitasuna izatea. 30 puntu.
--	--

ESKATZAILERAKO 01-dib09R4208a-bb29-42f57cbd0ddd



<p>Hau guztia ahalbidetzeko, gazteentzako eta gazteengandik administrazioaren laguntza beharrezkoa dela deritzo. Hortik beren ekimenak sustatzearen premia.</p> <p>Gazteek, norbanako gisara edo taldean, antolatzen dituzten gizarte eta kultur arloko ekimen puntualak, beren proiektzio eta interesagatik Tolosako Udaleko Gazteria arloko programa ezberdinen helburuekin bat etortzen badira sustatuko dira.</p> <p>Eskatzaileak ez du zertan Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroan inskribatuta egon behar; taldeka, baita banaka ere, eska daiteke, eta talde eskatzailearen kideen erdiak gutxienez 14-30 urte bitartekoak izan beharko dute eta jarduera nagusiki Tolosan burutu beharko da.</p> <p>Irizpideak deialdi berezian zehaztuko dira.</p> <p>Jarduera puntualetan ere proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 70 gaindituko. Aurrekontuan diru-sarrerak %30era iristen badira defizit osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera jardueraren kostua gainditu.</p> <p>C) BEKAK</p> <p>Gazte informazioaren dinamizazio estrategien barruan, gazteek informazioaren zabalkundearen parte hartu behar dute.</p> <p>Honegatik gazteengandik hurbil dauden GiGen gestioa gazteen euren esku uztea bereziki interesgarria da informazioaren zabalkundearengatik. Beraz, beken</p>	<p>Hau guztia ahalbidetzeko, gazteentzako eta gazteengandik administrazioaren laguntza beharrezkoa dela deritzo. Hortik beren ekimenak sustatzearen premia.</p> <p>Gazteek, norbanako gisara edo taldean, antolatzen dituzten gizarte eta kultur arloko ekimen puntualak, beren proiektzio eta interesagatik Tolosako Udaleko Gazteria arloko programa ezberdinen helburuekin bat etortzen badira sustatuko dira.</p> <p>Eskatzaileak ez du zertan Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroan inskribatuta egon behar; taldeka, baita banaka ere, eska daiteke, eta talde eskatzailearen kideen erdiak gutxienez 14-30 urte bitartekoak izan beharko dute eta jarduera nagusiki Tolosan burutu beharko da.</p> <p>Irizpideak deialdi berezian zehaztuko dira.</p> <p>Jarduera puntualetan ere proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 70 gaindituko. Aurrekontuan diru-sarrerak %30era iristen badira defizit osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera jardueraren kostua gainditu.</p> <p>C) BEKAK</p> <p>Egitasmoen puntuazioa eta laguntzaren kopurua kalkulatzeko erabiliko diren irizpideak Tolosako Udalak udalerriko irabazi-asmorik gabeko gazte elkarte edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko dirulaguntzak emateko onartutako oinarri berezietako 6. puntuan azaltzen dira.</p>
---	---



sistemaren bidez bi helburu lortu nahi dira: batetik, helburu nagusia hezi tza ilea da, eta, bestetik, bigarren mailako helburua eraginkortasun helburua da.

Puntuazio irizpideak:

- Diagnostikoa. 20 puntu.
- informazioa gazteen artean zabaltze ko estrategiak. 20 puntu.
- Gazteen informazio iturriak. nondik lortzen dute informazioa. 30puntu.
- komunikazio alorra. Esperientzia. curriculum. 30 puntu

Honako hauek direlarik;

- Diagnostikoa. 19 puntu.

- Informazioa gazteen artean zabaltze ko estrategiak. 19 puntu.

- Gazteen informazio iturriak. nondik lortzen dute informazioa. 29 puntu.

- Komunikazio alorra. Esperientzia. Curriculum. 28 puntu

- Genero ikuspegiaren balorazioa 5 puntu:

- **Irudi eta hizkuntza ez sexistak erabiltzea. 1 puntu**
- **-Sexuaren araberako datuak, tendentziak, kualitatiboki...emakume eta gizonen interesak... 1 puntu**
- **Emakumeen bisibilizazioa edota memoria jasotzen duen informazioaren zabalkundean lanketa egitea. 1 puntu**
- **Talde feminista bateko kidea, beldur barik kanpainan, udal jabetze eskola batean parte hartu izana. 1 puntu**
- **Blog feminista batetik edota generoaren gaia bereziki lantzen duen iturri batetik informazioa jeistea. 1 puntu**

Balorazio irizpideak deialdian aipatutako eran puntuatuko dira 2022/1 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako legeak balorazio-irizpideen baremoaren inguruan jasotzen duena bete dadin.



--	--

19. Artikulua. Prozeduraren instrukzioa

Aurreko testua	Testu berria
<p><u>Gazteriako oinarri berezietan: 9.</u> <u>EBAZPENA</u></p> <p>Ebazpena Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Kultura, festak eta Gazteria Saileko arduraduna.- Azterketa: Gazteria teknikaria.- Ebazpena (organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz. <p><u>Jakinarazpen epea</u></p> <p>Diru-laguntzen ebazpena jakinarazteko epea Tolosako Udaleko ordenantza orokorrean ezarritakoa izango da.</p>	<p><u>Gazteriako oinarri berezietan 9.</u> <u>EBAZPENA</u></p> <p>Ebazpena Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Kultura, festak eta Gazteria Saileko arduraduna.- Azterketa: Gazteria teknikaria <p>Behin eskabideak ebaluatuz eta haien gaineko txostena eginez gero, instrukzioaz arduratzen den zerbitzuak dirulaguntzak emateko proposamena egin eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan. Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da.»</p> <ul style="list-style-type: none">- Ebazpena (organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz. <p><u>Jakinarazpen epea</u></p> <p>Diru-laguntzen ebazpena jakinarazteko epea Tolosako Udaleko ordenantza orokorrean ezarritakoa izango da.</p>



27. artikulua. Diru laguntza jaso dezaketen gastuak

Aurreko testua	Testu berria
<p>5. artikuluan. <u>DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK</u></p> <p>Legean aurreikusitako diruz laguntzeko gastuez gain, finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko adituen gastuak, eta administrazioko espezifikoak diruz laguntzekoak dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira</p>	<p>5. artikuluan. <u>DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK</u></p> <p>Diruz laguntzeko modukoak izango dira, hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren zeharkako kostuak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera arrazoiz dagokion zatian, eta, nolana ere, kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkion neurrian.»</p>

III. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ordenantza espezifikoa aldatzeko prozedura egingo da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori guztia kontuan hartuta, Alkatetza honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Gazteriako *irabazi asmorik gabeko gazte elkartu eta elkartugabeen ekimenak sustatzeko* dirulaguntza programa arautzen duen ordenantza espezifikoa aipatutako aldaketak hasieraz onartzea Alkate Dekretu bidez, Ordenantza Orokorren aldaketarekin bat etor dadin, honako testuaren arabera:

Oinarri orokorrean 10. artikuluan, Pertsona edo entitate onuraduna izateko baldintzak eta baldintza horiek frogatzeko modua.

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>Gazteriako oinarri berezietan 3. Artikuluan</p> <p>Diru-laguntza horiek Tolosako irabazi asmorik gabeko gazte elkarteek, elkartu gabeko gazteek edota norbanakoek eskatu ahal izango dituzte.</p> <p>Gazte elkartuen kasuan legearen arabera</p>	<p>Gazteriako oinarri berezietan 3. Artikuluan</p> <p>Diru-laguntza horiek Tolosako irabazi asmorik gabeko gazte elkarteek, elkartu gabeko gazteek edota norbanakoek eskatu ahal izango dituzte.</p> <p>Gazte elkartuen kasuan legearen arabera</p>



<p>eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera nagusiki Tolosako udalerrian garatzen dutenak izango dira.</p> <p>Halaber, diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte nortasun juridikorik gabeko gazteek, jarduera zehatzak Tolosako Udalerrian egiten badituzte, Tolosako herriarentzat eta Tolosako eragileekin elkarlanean badira.</p> <p>Nolanahi ere, ekintza zehatz horren ordezkari edo ahaldun bakar bat, edo baita bi ere, beken kasuan, izendatu beharko dira, onuradun gisa dagozkion bete beharretarako.</p> <p>Kasu horietan guztietan, nahikoa izango da eskatzaileen erdiak edota eskatzailea bakarra denean, 14-30 urte bitarte izatea eta diruz laguntzeko proposatzen duen jarduera hein nagusian Tolosan burutzea.</p>	<p>eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera nagusiki Tolosako udalerrian garatzen dutenak izango dira.</p> <p>Halaber, diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte nortasun juridikorik gabeko gazteek, jarduera zehatzak Tolosako Udalerrian egiten badituzte, Tolosako herriarentzat eta Tolosako eragileekin elkarlanean badira.</p> <p>Nolanahi ere, ekintza zehatz horren ordezkari edo ahaldun bakar bat, edo baita bi ere, beken kasuan, izendatu beharko dira, onuradun gisa dagozkion bete beharretarako.</p> <p>Kasu horietan guztietan, nahikoa izango da eskatzaileen erdiak edota eskatzailea bakarra denean, 14-30 urte bitarte izatea eta diruz laguntzeko proposatzen duen jarduera hein nagusian Tolosan burutzea.</p> <p>Ezingo dute parte hartu:</p> <ul style="list-style-type: none">e) Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.f) Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.g) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizi-
--	---



tzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.

- h) Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa. Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.

Dirulaguntza lerro bakoitza eskatzeko baldintza zehatzak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak izango dira.



11. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

Aurreko testua:	Testu berria:
<p>Gazteriako Oinarri berezian 8. artikuluan, Onuradunaren betebeharrak eta eskubideei buruz:</p> <p>Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, deialdian jasotakoaz gain, hauek dira:</p> <p>Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Tolosako Udalarenak egunean dituela egiaztatzea. Dena den, erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, udalari datu hauek kontsultatzeko baimen klausula bete ahal izango dute, diru-laguntza eskaerarekin batera erregistroan entregatuta, besteak beste, kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none">- 3.000 €-tik beherako diru-laguntza eskaeretan.- Pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena eransten Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, deialdian jasotakoaz gain, hauek dira:	<p>Gazteriako Oinarri berezian 8. artikuluan, Onuradunaren betebeharrak eta eskubideei buruz:</p> <p>Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, deialdian jasotakoaz gain, hauek dira:</p> <p>Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Tolosako Udalarenak egunean dituela egiaztatzea. Dena den, erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, udalari datu hauek kontsultatzeko baimen klausula bete ahal izango dute, diru-laguntza eskaerarekin batera erregistroan entregatuta, besteak beste, kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none">- 3.000 €-tik beherako diru-laguntza eskaeretan.- Pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena eransten Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, deialdian jasotakoaz gain, hauek dira: <p>Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan</p>



	egiaztatu beharko da.
--	------------------------------

18. artikulua. Prozeduraren hasiera

Aurreko testua	Testu berria
<p>6. Diru-laguntza emateko irizpideak.</p> <p><u>6. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK</u></p> <p>Urteko ekintza eta ekintza puntualen kasuan, lehiakortasuneko aldiberekotasunaren bidez, eman beharreko diru-laguntzei dagozkien eta deialdi bakoitzean ezartzen diren balorazio irizpide zehatzez gain, aurkeztutako proiektuak baloratzeko, ondoren aipatzen diren faktoreak hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Burutu beharreko programaren edo jardueraren kalitatea, jarduera eta elkarreak dauzkan bazkide eta parte hartzaile kopurua, baita programaren objektua burutzeko beharrezko formakuntza ikastaroak ere. 30 puntu• Euskararen erabilera sustatzea bere jarduera-esparruaren barruan. Genero-ikuspegia txertatzea, emakume eta gizonen egoerak, baldintzak eta premiak desberdinak direla kontuan hartuta, otsailaren 18ko 4/2005 legea betez. Proposatutako jardueretan kanpo jatorria duten tolosar gazteen parte hartzea bultzatzeko estrategiak txertatzea. Haur, nerabe eta gazteentzako jarduerak antolatzean ohitura osasungarrien alde egitea. 40	<p>6. Diru-laguntza emateko irizpideak.</p> <p><u>6. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK</u></p> <p>Urteko ekintza eta ekintza puntualen kasuan, lehiakortasuneko aldiberekotasunaren bidez, eman beharreko diru-laguntzei dagozkien eta deialdi bakoitzean ezartzen diren balorazio irizpide zehatzez gain, aurkeztutako proiektuak baloratzeko, ondoren aipatzen diren faktoreak hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Burutu beharreko programaren edo jardueraren kalitatea, jarduera eta elkarreak dauzkan bazkide eta parte hartzaile kopurua, baita programaren objektua burutzeko beharrezko formakuntza ikastaroak ere. 30 puntu• Euskararen erabilera sustatzea bere jarduera-esparruaren barruan. Genero-ikuspegia txertatzea, emakume eta gizonen egoerak, baldintzak eta premiak desberdinak direla kontuan hartuta, otsailaren 18ko 4/2005 legea betez. Proposatutako jardueretan kanpo jatorria duten tolosar gazteen parte hartzea bultzatzeko estrategiak txertatzea. Haur, nerabe eta gazteentzako jarduerak antolatzean ohitura osasungarrien alde egitea. 40



puntu

- Erakunde edo pertsona eskatzailearen urteko programak Tolosako bizitza soziokulturalaren sustapenean egingo duen ekarria eta udal-intereseko jardueretan parte-hartzea. 20 puntu
 - Bere jarduera garatzen duen esparruan erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna.
 - Aurkeztutako programazioa biztanleria gazteari oro har hedatzea.
- Erakundearen finantza-baliabideak eta eskatutakoaren proportzioa bereak dituen baliabideekiko. 10 puntu

Goian jasotako atalak oinarri hartuta puntuazio irizpide zehatzak bilduko dira deialdi berezietan, hauen aplikazioak puntuazio zehatz bat emango dio eskaera bakoitzari, lehentasun-hurrenkera bat ezarriz.

Puntuaren balorea zein izango den zehazteko, atal honetako diru-laguntzak guztira izango duten zenbatekoa hartu eta onartutako eskaera guztiei emandako puntuekin zatitu beharko da. Diru-laguntza izango da eskaera bakoitzak lortu dituen puntu guztien batura.

2.- Deialdi bakoitzean diruz lagunduko diren lan ildoak ondorengoak izango dira:

A) URTEKO PROGRAMAZIOA Diruz lagunduko dira beren eguneroko jardueren eta ohiko jarduera bidez elkartearen helburuak lortu nahi dituzten programak eta jarduerak.

puntu

- Erakunde edo pertsona eskatzailearen urteko programak Tolosako bizitza soziokulturalaren sustapenean egingo duen ekarria eta udal-intereseko jardueretan parte-hartzea. 20 puntu
 - Bere jarduera garatzen duen esparruan erakutsitako ibilbidea, jarraitutasuna eta egonkortasuna.
 - Aurkeztutako programazioa biztanleria gazteari oro har hedatzea.
- Erakundearen finantza-baliabideak eta eskatutakoaren proportzioa bereak dituen baliabideekiko. 10 puntu

Goian jasotako atalak oinarri hartuta puntuazio irizpide zehatzak bilduko dira deialdi berezietan, hauen aplikazioak puntuazio zehatz bat emango dio eskaera bakoitzari, lehentasun-hurrenkera bat ezarriz.

Puntuaren balorea zein izango den zehazteko, atal honetako diru-laguntzak guztira izango duten zenbatekoa hartu eta onartutako eskaera guztiei emandako puntuekin zatitu beharko da. Diru-laguntza izango da eskaera bakoitzak lortu dituen puntu guztien batura.

2.- Deialdi bakoitzean diruz lagunduko diren lan ildoak ondorengoak izango dira:

A) URTEKO PROGRAMAZIOA Diruz lagunduko dira beren eguneroko jardueren eta ohiko jarduera bidez elkartearen helburuak lortu nahi dituzten programak eta jarduerak.



<p>Diru-laguntza ildo hau gazteriako diru laguntzen partidari atxikiko zaio.</p> <p>Proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 70 gaindituko. Aurrekontuan diru-sarrerak %30era iristen badira defizit osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera jardueraren kostua gainditu.</p> <p>-BAZKIDEEN PRESTAKUNTZA</p> <p>Diruz lagunduko da elkartekideak bertako kudeaketa, programazio eta jarduerekin lotutako prestakuntza eta gaitze ikastaro eta programetara joatea. Atal honetan, bereziki aisialdiko monitoreak eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak hartuko dira kontuan.</p> <p>Diru-laguntza ildo hau gazteriako diru laguntza partidari atxikiko zaio.</p> <p>-MATERIALA EROSTEA ETA BERRITZEA</p> <p>Eskatzaileak bere eguneroko programak eta jarduerak burutzeko behar dituen materialen erosketak eta berritzeak izango dira.</p> <p>B) EKIMEN PUNTUALAK</p> <p>Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen sustapenerako sistemak dioen moduan, parte hartzeak herritartasun aktiboa sustatzea eta era berean hiru elementu ezberdin bultzatzea dakar:</p> <p>- Norbanako mailan autonomia sustatzea: Norbere burua antolatu eta izateko/egiteko aukera eta gaitasunak izatea. 40 puntu</p>	<p>Diru-laguntza ildo hau gazteriako diru laguntzen partidari atxikiko zaio.</p> <p>Proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 70 gaindituko. Aurrekontuan diru-sarrerak %30era iristen badira defizit osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera jardueraren kostua gainditu.</p> <p>-BAZKIDEEN PRESTAKUNTZA</p> <p>Diruz lagunduko da elkartekideak bertako kudeaketa, programazio eta jarduerekin lotutako prestakuntza eta gaitze ikastaro eta programetara joatea. Atal honetan, bereziki aisialdiko monitoreak eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak hartuko dira kontuan.</p> <p>Diru-laguntza ildo hau gazteriako diru laguntza partidari atxikiko zaio.</p> <p>-MATERIALA EROSTEA ETA BERRITZEA</p> <p>Eskatzaileak bere eguneroko programak eta jarduerak burutzeko behar dituen materialen erosketak eta berritzeak izango dira.</p> <p>B) EKIMEN PUNTUALAK</p> <p>Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen sustapenerako sistemak dioen moduan, parte hartzeak herritartasun aktiboa sustatzea eta era berean hiru elementu ezberdin bultzatzea dakar:</p> <p>- Norbanako mailan autonomia sustatzea: Norbere burua antolatu eta izateko/egiteko aukera eta gaitasunak izatea. 40 puntu</p>
---	---



<p>- Talde mailan dimentsio aktiboa sustatzea: Gizabidezko jarrera, jendartearekiko konpromisoa eta errealitatearekiko espirtu kritiko duena. 30 puntu</p> <p>- Komunitate mailan jendarteko aldaketa prozesuetan inplikatzeko gaitasuna izatea. 30 puntu.</p> <p>Hau guztia ahalbidetzeko, gazteentzako eta gazteengandik administrazioaren laguntza beharrezkoa dela deritzo. Hortik beren ekimenak sustatzearen premia.</p> <p>Gazteek, norbanako gisara edo taldean, antolatzen dituzten gizarte eta kultur arloko ekimen puntualak, beren proiektzio eta interesagatik Tolosako Udaleko Gazteria arloko programa ezberdinen helburuekin bat etortzen badira sustatuko dira.</p> <p>Eskatzaileak ez du zertan Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroan inskribatuta egon behar; taldeka, baita banaka ere, eska daiteke, eta talde eskatzailearen kideen erdiak gutxienez 14-30 urte bitartekoak izan beharko dute eta jarduera nagusiki Tolosan burutu beharko da.</p> <p>Irizpideak deialdi berezian zehaztuko dira.</p> <p>Jarduera puntualetan ere proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 70 gaindituko. Aurrekontuan diru-sarrerak %30era iristen badira defizit osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera jardueraren kostua gainditi.</p> <p>c) BEKAK</p>	<p>- Talde mailan dimentsio aktiboa sustatzea: Gizabidezko jarrera, jendartearekiko konpromisoa eta errealitatearekiko espirtu kritiko duena. 30 puntu</p> <p>- Komunitate mailan jendarteko aldaketa prozesuetan inplikatzeko gaitasuna izatea. 30 puntu.</p> <p>Hau guztia ahalbidetzeko, gazteentzako eta gazteengandik administrazioaren laguntza beharrezkoa dela deritzo. Hortik beren ekimenak sustatzearen premia.</p> <p>Gazteek, norbanako gisara edo taldean, antolatzen dituzten gizarte eta kultur arloko ekimen puntualak, beren proiektzio eta interesagatik Tolosako Udaleko Gazteria arloko programa ezberdinen helburuekin bat etortzen badira sustatuko dira.</p> <p>Eskatzaileak ez du zertan Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroan inskribatuta egon behar; taldeka, baita banaka ere, eska daiteke, eta talde eskatzailearen kideen erdiak gutxienez 14-30 urte bitartekoak izan beharko dute eta jarduera nagusiki Tolosan burutu beharko da.</p> <p>Irizpideak deialdi berezian zehaztuko dira.</p> <p>Jarduera puntualetan ere proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 70 gaindituko. Aurrekontuan diru-sarrerak %30era iristen badira defizit osoaren %100 finantzatu ahalko da. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera jardueraren kostua gainditi.</p>
---	---



<p>Gazte informazioaren dinamizazio estrategien barruan, gazteek informazioaren zabalkundearen parte hartu behar dute.</p> <p>Honegatik gazteengandik hurbil dauden GiGen gestioa gazteen esku uztea bereziki interesgarria da informazioaren zabalkundeari begira. Beraz, beken sistemaren bidez bi helburu lortu nahi dira: batetik, helburu nagusia hezi tza ilea da, eta, bestetik, bigarren mailako helburua eraginkortasun helburua da.</p> <p>Puntuazio irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none">— Diagnostikoa. 20 puntu.— informazioa gazteen artean zabaltze ko estrategiak. 20 puntu.— Gazteen informazio iturriak. nondik lortzen dute informazioa. 30puntu.— komunikazio alorra. Esperientzia. curriculum. 30 puntu	<p>C) BEKAK</p> <p>Egitasmoen puntuazioa eta laguntzaren kopurua kalkulatzeko erabiliko diren irizpideak Tolosako Udalak udalerriko irabazi-asmorik gabeko gazte elkarte edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko dirulaguntzak emateko onartutako oinarri berezietako 6. puntuan azaltzen dira.</p> <p>Honako hauek direlarik;</p> <ul style="list-style-type: none">- Diagnostikoa. 19 puntu.- Informazioa gazteen artean zabaltze ko estrategiak. 19 puntu.- Gazteen informazio iturriak. nondik lortzen dute informazioa. 29 puntu.- Komunikazio alorra. Esperientzia. Curriculum. 28 puntu- Genero ikuspegiaren balorazioa 5 puntu: <ul style="list-style-type: none">• Irudi eta hizkuntza ez sexistak erabiltzea.1 puntu• Sexuaren araberako datuak, tendentziak, kualitatiboki...emakume eta gizonen interesak... 1 puntu• Emakumeen bisibilizazioa edota memoria jasotzen duen informazioaren zabalkundearen lanketa egitea. 1 puntu• Talde feminista bateko kidea, beldur barik kanpainan, udal jabetze eskola batean parte hartu izana. 1 puntu• Blog feminista batetik edota generoaren gaia bereziki lantzen duen iturri batetik
--	--

ESKERRAZKOAK - d80f4d08a-bb29-42f57cbd0ddd



	<p>informazioa jeistea. 1 puntu</p> <p>Balorazio irizpideak deialdian aipatutako eran puntuatuko dira 2022/1 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legeak balorazio-irizpideen baremoaren inguruan jasotzen duena bete dadin.</p>
--	--

19. Artikulua. Prozeduraren instrukzioa

Aurreko testua	Testu berria
<p><u>Gazteriako oinarri berezietan: 9.</u> <u>EBAZPENA</u></p> <p>Ebazpena Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Kultura, festak eta Gazteria Saileko arduraduna.- Azterketa: Gazteria teknikaria.- Ebazpena (organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz.	<p><u>Gazteriako oinarri berezietan 9.</u> <u>EBAZPENA</u></p> <p>Ebazpena Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Kultura, festak eta Gazteria Saileko arduraduna.- Azterketa: Gazteria teknikaria <p>Behin eskabideak ebaluatuz eta haien gaineko txostena eginez gero, instrukzioaz arduratzen den zerbitzuak dirulaguntzak emateko proposamena egin eta Batzorde bati, zeinaren osaera deialdian zehaztuko den, aurkeztuko dio, honek irizpena eman dezan. Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da.»</p> <ul style="list-style-type: none">- Ebazpena (organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren



<p><u>Jakinarazpen epea</u></p> <p>Diru-laguntzen ebazpena jakinarazteko epea Tolosako Udaleko ordenantza orokorrean ezarritakoa izango da.</p>	<p>administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritz.</p> <p><u>Jakinarazpen epea</u></p> <p>Diru-laguntzen ebazpena jakinarazteko epea Tolosako Udaleko ordenantza orokorrean ezarritakoa izango da.</p>
--	--

27. artikulua. Diru laguntza jaso dezaketen gastuak

Aurreko testua	Testu berria
<p>5. artikuluan. <u>DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK</u></p> <p>Legean aurreikusitako diruz laguntzeko gastuez gain, finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko adituen gastuak, eta administrazioko espezifikoko diruz laguntzekoak dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira</p>	<p>5. artikuluan. <u>DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK</u></p> <p>Diruz laguntzeko modukoak izango dira, hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren zeharkako kostuak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera arrazoiz dagokion zatian, eta, nolana ere, kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkion neurrian.»</p>

BIGARRENA.- Proposatutako aldaketok Tolosako Udalak eta bere Erakunde Publikoak Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailearen behin betiko onarpenera baldintzatzea.

HIRUGARRENA.- Ordenantza espezifikoaren aldaketa hauek eta dagokionespedientearen informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, epe horretan entzunaldia ematea eragileei.

LAUGARRENA.- Informazio- eta entzunaldi-epea amaitu ondoren, Udaltza osoak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu. Alegaziorik ez balitz aurkeztuko, ordenantza espezifikoa behin betikoz onartutzat joko da.



TOLOSAKO
UDALA

BOSGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta Iragarki taulan, eta Gardentasunaren atarian argitaratzea.

ALKATEAK	Nire aurrean, IDAZKARIAK
Olatz Peon Ormazabal	Begoña Garmendia Vazquez

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faza: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
23

www.tolosa.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**



Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU594b50a1-d13f-425e-bb29-42f57cbd0ddd**



Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IORD0010-Gazteriako Dekretua/Gazteriako Dekretua ()